

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “honetan Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluari buruz” hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

4/2005 legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bere 24. artikuluan 5. atalean esaten denez, “Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena”. Gauzak horrela, jada aurreko agintaldian Eusko Jaurlaritzak, jendaurrean jarri zuen “Berdintasunerako Emakumeen Euskal kontseilua sortzeko lege aurre proiektua”. 2007ko martxoaren 29an izan zen hori.

Kontuan izanik, aurreko agintaldian ez zela prozesua amaitu eta ez zela Legebiltzarrean iritsi lege proiektu hori eta 2010eko azaroaren 17an gobernu kontseiluak hartutako erabakiaren arabera “suspentsioan” uztea erabaki zuela iragarritako gastu publikoaren murrizketen aitzakiarekin, egoki deritzogu gaiari eutsi lege proiektuaren prozesuari berriz eustea.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkeztu du

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, 3 hilabeteko epean, aurkez dezala ganbera honetan Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluaren lege proiektua ahal den denborarik laburrenean Emakumeen Kontseilua martxan jarri dadin.

Gasteiz, 2011ko otsailaren 28an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea